# Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest Gara 2021-2022 Plana

**Norentzat**

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako irakasleentzat eta 0–3 urteko zikloan lan egiten duten irakasleentzat, ziklo horretarako jarduueretan.

**Eskaera egiteko epeak**.

Eskaerak aurkezteko bi epe irekiko dira. Epe bakoitzean, epe horri dagozkion prestakuntza-jarduueretarako soilik aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

a) Lehen eskaera-epea:

– 2021ko uztailean, abuztuan, irailean eta urrian hasten diren jarduerak.

– Eskaera egiteko epea: 2021ko maiatzaren17tik ekainaren 4ra arte, biak barne.

b) Bigarren eskaera-epea:

– 2021ko azarotik 2022ko ekainera bitartean egiten diren jarduerak.

– Eskaera egiteko epea: 2021ko irailaren 13tik urriaren 1era arte, biak barne.

**Eskaerak aurkeztea**

Eskaera telematikoki egingo da, Hezkuntza Saileko aplikaziora jota, Irakaslegunea atarian. Ikastetxe publikoetako nahiz itunpeko ikastetxeetako langileak sar daitezke han.
Epe bakoitzaren barruan, nahi adina prestakuntza-jardueratarako eskaera egin daiteke, eta eskaera-orrian haien lehentasun-ordena adieraziko da.

**Prestakuntza-jarduerak**

2021-2022 ikasturterako prestakuntza-jardueren zerrenda Hezkuntza Sailaren webgunean kontsulta dezakete:

https://irakaslegunea.euskadi.eus/es/catalogo-formacion

*Irakaskuntzan STEILAS!*